BIZITEGI ERAIKINA — BERMINGHAM 11

D MAILA





Egilea eta data: Pablo Zabalo; 1919

Deskribapena

Kantoiko eraikina, behe oina, jatorrizko bost goi oin eta 1949ko bi jasodura atzeraeman (bigarrena estalkipean) dituena. Hareharriz harlandutako fatxada, estaldura zeramikoko elementuak dituena goi oinetan jasoduretaraino. Hormigoizko begiratokiak Bermingham kaleko ertzean eta kantoiko alaka. Apainduran, konposizioan, egiletzan eta datan izaera berekoa Bermingham 7 eta 9rekin.

Babes erregimena.

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: 5., 6. eta 7. goi oinak.
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; estaldura zeramikoak.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio unitarioarekin loturikoak barne.